

## EUSKALKIAK ZER DIRA?

Deskribapena: Kike eta Koldo Zuazo ageri dira kalean elkarrizketan.

Kike: “Koldo, ba hogeita bost urte honetan pasa eta gero, galdera hau erantzungo didazu: zer da euskalki bat?”

Koldo: “Hartu-emana daukan jendeak, bata bestearekin hartu-emana daukan jendeak, ba hizkera bat pixkanaka sortu egiten du, ezta? Gero gertatzen da, herri normaletan, ba, eskolaren bitartez edo administrazioaren bitartez edo egoten da indar bat hizkuntza batzen duena eta hemen Euskal Herrian gertatu izan zaiguna da ez dugula izan indar bateratzailerik, hemen hizkuntza ofiziala erderak izan dira; euskera izan da baztertuta, debekatuta askotan egon den hizkuntza bat; euskera izan da ahoz aho transmititu dena eta horregatik ba, ibar batetik bestera aldatu egiten da euskera, ezta?”

Kike: “Koldo, eta euskalkiak noiz sortu ziren edo zer dela eta sortu ziren?”

Koldo: “Bueno, euskera hizkuntza zaharra da orduan dialektuak beti egongo ziren, ez? baina guk gaur egiten ditugun hauek ez dira, ez du ematen oso zaharrak direnik.”

Kike: “Ah, ez?”

Koldo: “Ematen du, e, erromatarren ondorengo garaian euskera batuta egon zela, beharbada euskaldunok ere batuta egongo ginen eta egon zela euskera batuak garai hartan eta ematen du, ba, euskalki hauek Erdi Aroan sortutakoak direla.”

Kike: “Eta euskalkiak nola ikusten dituzu gotorleku bezela edo aberastasun bezela?”

Koldo: “Duda barik euskalkiak dira bizirik iraun duen euskeraren aztarnak, ezta? Orduan, edozein gauza egin nahi badugu etorkizunari begira ba bizirik dagoen horretan oinarritu behar gara. Baina beste alde batetik euskera batuak eman digu batasun bat, euskera batuari esker euskaldunok bata bestearekin ulertu dezakegu, euskera batuari esker hainbat lagunek euskera ikasi ahal izan du. Azken urte hauetan galdu egin dugu euskera batuaren inportantzia hori jendeak pentsatzen du, mito batzuk ere sortu dira euskera batuaren kontra, esaten da laboratoriokoa dela, artifiziala dala baina euskera batuak sekulako mesedea egin digu euskaldunoi.”